

SAILBURUA  
LA CONSEJERA**AGINDUA, 2018ko AZAROAREN 14koa, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA, JUSTIZIAKO ADMINISTRAZIOAN, 2018ko URRIAREN 16rako DEITUTAKO GREBA EGUNEAN ERKIDEGOARI EMAN BEHARREKO FUNTSEZKO ZERBITZUAK MANTENDUKO DIRELA BERMATZEKO DENA.**

Greba-deialdia egin dute CSIF, STAJ, CCOO eta UGT erakunde sindikalek, azaroaren 16rako: 00:00etan hasiko da, eta 24:00etan amaitu. Grebak Justizia Administrazioko Kidego Nazional guztiei eragiten die (Justizia Administrazioko Legelariak, Kudeaketa Prozesala, Izapidetze Prozesala, Laguntza Judiziala, Auzitegi Medikuak eta Profesionalak, Teknikari Espezialistak, Toxikologiaren eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionaleko Laborategiko Laguntzaileak), eta, orobat, Espainia osoko Justizia Administrazioko esparru guztiei.

Deialdi hau egiteko arrazoia da, deitzaileen arabera, *Justizia Ministerioan aurrez egondako arduradunek hartutako erabakia, zeinak oraingo arduradunen oniritzia duen. Izan ere, oraingo arduradunek azken batean onartu egin dute besteek proposatutako testuari eustea, zeinak abian jartzen zuen, negoziazio kolektiborako eskubidea urratuz, BJLOren erreforma; eta horrek, egungo egoeraren aldean, aldaketa esanguratsuak ekarriko ditu Justizia Administrazioko langileen lan-baldintzetan. Horietako batzuk dira, eta benetan larriak, langileen egungo destinoko zentroak bertan behera uztea, udalerriko zentroak zentro bakarrera ekartzea eta nahitaezko mugikortasuna ezartzea. Erreforma honek dakar, gainera, modu progresiboan ezabatzea langile funtzionarioen izendapenak gehiegizko lan-karga duten Epaitegien beharrei erantzuteko; horrek hondamena ekarriko du Justizia Administrazioko zerbitzu publikora eta lanpostu asko eta asko galduko dira.*

Eta jarraitzen dute esaten, deialdi honen bitartez, asmoa zera dela, *Justizia Ministerioak erabaki bat har dezala, zeinak bermatuko duen, izapidetze-aldian den BJLOren erreforman, egun indarrean den BJLOren testuari eustea; alegia, aurrez azaldutako kasu guztietan egun idatzita dagoena aintzat hartzea, hain zuzen ere bermatu daitezen Justizia Administrazioko langileen egungo lan-eskubideak, Justizia Administrazioaren zerbitzu publikoa eta enplegua bera.*

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten du greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, integritate fisikoa, eta babes judizial eraginkorrerako eskubidea, besteak beste. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere. Beraz, greba egiteko eskubidea herritarren gainerako funtsezko eskubideen kontrakoa izan daitekeenez, eta Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, Erkidegoko ezinbesteko zerbitzuak betetzeko neurriak hartu behar dira, auzitan dauden eskubideetako bat bera ere edukirik gabe gera ez dadin. Zehazki, gure kasuan, Konstituzioaren 24. Artikuluak adierazten duenez, *"persona guztiek dute eskubidea babes eraginkorra jasotzeko epaileen eta auzitegien aldetik, hain zuzen ere beren legezko eskubide eta interesak babesteko; ezin da, inola ere, defentsa-gabeziarik egon"*.





Hala ere, aurreko premisa gorabehera, begien bistakoa da funtsezko eskubideak mugatzeko edozein neurri proportzionaltasunaren printzipioa zorroztasunez aplikatuz hartu behar dela, eta horretarako hiru baldintza bete behar ditu neurri horrek: hori aplikatuz proposatutako helburua lortu ahal izatea, edo «egokitasun-judizioa»; egitatea aztertuta, ondorioztatu izana ez dagoela neurri apalagoren bat helburu hori eraginkortasun berarekin lortzeko, edo «beharrizan-judizioa»; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun-judizioa, zehazki ulertuta». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Auzitegi Konstituzionalak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu erkidegoarentzat ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzea. Hori guztia dela eta, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta; betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela, –etsi, Auzitegi Konstituzionalaren hitzetan– haien eskubideak grebaren bidez babesteak erkidegoari edo ezinbesteko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazio edo eskakizunen arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela eta, greba-deialdi honen aurrean, haren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan; hogeita lau orduko lanuztea da, lanegun batean, Justizia Administrazioan, alegia, ezinbestekotzat jo behar den zerbitzu publikoan.

Horregatik guztiagatik, Konstituzioaren 24. artikuluan bildutako tutoretza judizial eraginkorra izateko konstituzio-eskubideak ezin daitezke dagokien babesik gabe geratu, ezta greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eta herri-agintariei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarri eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Agintaritzak gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu, agindu honetan zehaztu direnak, erkidegoan ezinbesteko zerbitzuak bermatzeko, Erkidego honen eskumenekoa den Justizia Administrazioaren eremuan.

Organo Jurisdikzionalen jarduerak, konstituzioaren lehen mailakoak izaki, bermatu beharrekoak diren funtsezko eskubide garrantzitsu jakin batzuei eragiten die. Ondorioz, grebarik denean aipatu jarduera funtsezko kontsideratu behar da, eta hori honako zioak direla-eta: batetik, oinarrizko eskubideei, esaterako, askatasunari eragitea; eta, bestalde, EAEko Auzitegi Gorenaren 2008-10-25eko 771 Epaik ezartzen duenez, Jurisdikziora sarbidea izatea edo babes judiziala izatea oztopatzea.

Aipatu 2006ko urriaren 25eko Epaiaren bitartez, grebarik denean gutxieneko zerbitzuak zehazteko irizpideak finkatzen dira –barne direla langile-dotazioak–, eta haiek honako hauek dira: guardiako funtziotan AMEEko eta epaitegietako pertsonalaren % 100eko dotazioa; dokumentuak jaso eta erregistratzea; legez ezarritako epearen bat bukatzen denean premiazko sailkatutako jarduketak, horiek ez betetzeak betiere eskubideak kaltetzea edo galtzea badakarkie honako hauei: eragina galtzeko arrazoizko arriskurik gabe, hurrengo egunetarako utzi ezin diren neurri kautelazko, behin-behineko eta exekutiboak; eta, halaber, pertsona bat askatzeko berandutzarik ez izatea; judizioak, bertaratzeak eta greba egunerako finkatutako antzekoak, zehazki, bertan behera uzteak





kalte larria eragin dezaketenak, hain justu ere geroago egiteko zailtasunak direla-eta edo eragin daitezkeen proportziorik gabeko kalteak direla-eta. Zirkunstantzia horiek direla-eta Gobernu Agintaritzak gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu, agindu honetan zehazten direnak, betiere gatazkan diren eskubideen funtsezko edukiak bateragarri egitekotan.

Zerbitzu jakin batzuk ezinbestekoak dira funtsezko eskubide batzuk betetzen dituztelako, eta zerbitzu horiek mantendu ahal izateko, greba-eskubideari muga batzuk jarri behar zaizkio. Eta alor horretan eskumen eksklusiboa gobernu-agintaritzak edukitzeak zera bermatzen du, muga horiek zuzenbidearen arabera ezarriko direla, eta, ezarri ere, gobernatzeko erantzukizuna eta ahalmena duenak baino ez dituela ezarriko.

Izan ere, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Dekretu Legearen 10.2 artikulua honako hau xedatzen du: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharriazko edozein zerbitzu eskaintzeko enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernu-agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartzeko neurriak har ditzake».

Arau horretan –zeina konstituzionala den (Auzitegi Konstituzionalaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [RTC 1981\11])–, Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikuluekin bat etorritik, bertan honako hau ezartzen baita: «eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu erkidegoarentzako funtsezko zerbitzuen mantentzea ziurtatzeko», azken batean, gobernu-agintaritzari ematen zaio edozein motatako berme-neurri hartzeko, greba-kasuan ezinbesteko zerbitzuei eusteko, eta hori egiteko neurrietako bat administrazio-ebazpenaren bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea da, eta lan-prestazioa eskaini behar duten langileei horiek bete ditzaten eskatzea.

Arrazoi honengatik, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2. artikuluan aipatzen den prozedura izapidetu da, eta entzutea eman zaie idatziz greba deitzen duen erakunde sindikalari eta Justizia Sailburuordetzari, hauek ere idatziz eman ditzaten euren proposamenak, Jaurlaritzaren erabakiaren eragina jasango duten zerbitzu eta langileen gainean.

Apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren (Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenaren) 3.1. artikulua Lan eta Justiziako sailburuari ematen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasotako eskumenak (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena). Dekretu horren 16. artikuluan, Lan eta Justizia Saila sortzen da, eta, beste egiteko eta jardun-arlo batzuen artean, lan-arloko legeriak lan-harremani buruz ezartzen duena egikaritzeko egitekoa esleitzen zaio, eta, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetzen zaio zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzeraezineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeetan greba-eskubidea baliatzen dutenean autonomia-erkidegoko ezinbesteko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko beharrezko diren neurriak ezartzeko eskumena.





Horregatik guztiagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak jasota, honako hau

### **EBAZTEN DU:**

**Lehenengoa.-** Greba-eskubidea erabiliko da, 24 orduko lanuztea eginez 2018ko azaroaren 16an, eta horretara deituak izan dira Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioari langile guztiak; bada, deialdi horretan hurrengo gutxieneko zerbitzuak bete beharko dira:

- Guardia Zerbitzuaren berezko jardunak.
- Dokumentuak jaso eta erregistratzea.
- Premiazko gaiak organo judizialen artean banatzea.
- Legeak alde aurretik ezarritako epea amaitzen zaien jardun guztiak, baldin eta ez-betetzeak eskubideen galera edo eskubideak kaltetzea ekar badezake berekin.
- Ondorengo egunetarako utziz gero, eraginkortasuna gal dezaketen edo norbait espetxetik ateratzeko eguna atzeratzea ekar dezaketen kautelazko, behin-behineko eta betearazpeneko neurriak.
- Instrukzioko edo prozesua bultzatzeko jarduera, baldin eta aurreko idatzi-zatian aipatutako zirkunstantzietako bat gertatzen bada.
- 2018ko azaroaren 16rako deitutako ekitaldiak (epaiketak, agerraldiak eta abar), baldin eta etenez gero kalte larriak ekar baditzakete berekin, ondorenean egiteko zailtasunak direla-eta edo etenaldiak eragin litzakeen neurrigabeko kalteak direla-eta, besteak beste:
  - Zigor-arloan, epaiketak edo apelazio-ikustaldiak, baldin eta tartean askatasunik gabeko pertsonak badaude edo urtebetetik gorako espetxealdia eskatzen bada.
  - Ario zibilean, hartzekodunen batzarrak konkurtso-prozeduretan, eta oso behin-behineko neurriak.
  - Arlo sozialean, kaleratzeengatik epaiketak.
  - Arlo guztietan, funtsezko eskubideen tutoretza-prozesuetan deitutako ekitaldiak, baldin eta etenaldiak azken ebazpena berandutzen badu.
- Epea amaitzen zaien lurperatze-lizentziak eta erregistro-inskripzioak.
- Itsasontzi-matxurekin, itsas protestekin eta errequisitoria-pertsonen egoera legeztatzearekin zerikusia duten jarduerak.
- Pertsonak barneratzea.





**Bigarrena.-** Zerbitzuok eskainiko dituzte grebarik egingo ez duten langileek, baina gerta liteke langileekin aski ez izatea ezarritako gutxienekoak betetzeko, eta hala dator zehaztuta Agindu honen Eranskinean.

Kasu horretan, Justizia Administrazioako Legelariei, fiskalburuei edo dagokion erakundeko buruari dagokie ezinbesteko zerbitzuak bete behar dituztenak izendatzea, baita gutxieneko zerbitzuak bete behar dituen funtzionarioak zer kidegotakoa izan behar duen zehaztea ere, halakorik zehaztu ez den kasuetan, dagokion organoaren berezko zereginaren barnean bildutako ezinbesteko zerbitzuak betetz.

**Hirugarrena.-** Agindu honen aurreko idatzi-zatietan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketa edo geldialdien ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kanpokotzat joko dira eta horiek egiten dituztenak erantzule izango dira, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

**Laugarrena.-** Aurreko artikuluetan xedaturikoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak ez dira inolaz ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

**Bosgarrena.-** Jakinarazten den egunean sartuko da indarrean agindu hau.

**Seigarrena.-** Ebazpen honen berri eman behar zaie interesdunei, betiere urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenaren) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtsua jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren dagokion Salan, ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita 2 hilabeteko epean, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak) xedaturikoaren arabera..

Era berean, eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke Lan Administrazioako Agintaritzan, Agindua jakinarazi eta bihamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroaren 14a.

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
LAN ETA JUSTIZIA  
SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO  
**MARIA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LOPEZ**

**LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUA**



## AGINDUAREN ERANSKINA

Guardian dauden epaitegietan eta Auzitegiko Medikuntzaren Euskal Erakundearen izan ezik —horietan guardiako zerbitzua egin ohi duten langile guztiek lan egin beharko dute— honako gutxienerako zerbitzu hauek ezartzen dira aipatutako ezinbesteko zerbitzuak emateko:

<b>Justiziako Auzitegi Nagusia</b>	
Gobernu Idazkaritza	Funtzionario 1
Salak	Funtzionario 1 sala bakoitzeko
Fiskaltzak	
Auzitegi Nagusiaren Fiskaltza	2 funtzionario
Barakaldoko, Gasteizko eta Donostiako fiskaltzak	Funtzionario 1
<b>Probintzia Auzitegiak</b>	
Sekzioak	Funtzionario 1 sekzio bakoitzeko
Gasteizko Izapidetze Bulego Komuna	Funtzionario 1
Gasteizko Informazioko, Erregistroko eta Banaketako Zerbitzu Orokorra.	Funtzionario 1
Donostiako Zerbitzu Komun Orokorra	Funtzionario 1
Jakinarazpen eta Enbargoen Zerbitzu Komuna	Kudeaketa Kidegoko funtzionario 1 Laguntza Kidegoko funtzionario 1
Bilboko Erregistroko, Banaketako eta Zigor- arloko Errekurtsoak Izapidetzeko Bulegoa	Funtzionario 1
Lehen Auzialdiko Epaitegiak	Funtzionario 1 epaitegi bakoitzeko
Erregistro Zibila duten 1. Auzialdiko Epaitegiak	2 funtzionario epaitegi bakoitzeko
Bilboko Erregistro Zibila	2 funtzionario
Instrukzioko Epaitegiak	Funtzionario 1 epaitegi bakoitzeko
Lan-arloko Epaitegiak	Funtzionario 1 epaitegi bakoitzeko





Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak	Funtzionario 1 epaitegi bakoitzeko
Merkataritza-arloko epaitegiak	Funtzionario 1 epaitegi bakoitzeko
Adin Txikikoen epaitegiak	Funtzionario 1 epaitegi bakoitzeko
Espetxeratuen Zaintzarako epaitegiak	Funtzionario 1 epaitegi bakoitzeko
Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiak	Funtzionario 1 epaitegi bakoitzeko
Gasteizko Zigor Arloko Epaitegiak	Funtzionario 1 2 epaitegiatarako
Bilboko Zigor Arloko Epaitegiak	3 funtzionario 6 epaitegiatarako
Bilboko Zigor Arloko Epaitegia (Betearazpenak)	Funtzionario 1
Barakaldoko Zigor Arloko Epaitegiak	Funtzionario 1 2 epaitegiatarako
Donostiako Zigor Arloko Epaitegiak	2 funtzionario 5 epaitegiatarako
Donostiako Zigor Arloko Epaitegien Betearazpenak izapidetzeko Bulegoa	Funtzionario 1
Zerbitzu Erkide Prozesala	Kudeaketa Kidegoko funtzionario 1 Laguntza Kidegoko funtzionario 1
Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoa	Kudeaketa Kidegoko funtzionario 1, Izapidetze Kidegoko funtzionario 1 Laguntza Kidegoko funtzionario 1
Erregistro eta Banaketa Zerbitzu Komuna.	Funtzionario 1
Gobernuaren eta gainerako Zerbitzu Komunen Bulegoa	Funtzionario 1
1. Auzialdiko eta Instrukzioko Zuzeneko Laguntza emateko Unitate Prozesala	Funtzionario 1
Bake Epaitegiak.	Funtzionario 1
<b>Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea</b>	
Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakunde Zuzendariorde bakoitzeko	Auzitegiko 2 mediku eta funtzionario 1

